



Zerbitzuen Karta

Igartubeiti Baserri Museoa 2014-2015



Gipuzkoako Foru Aldundia

Sarrera

Zerbitzuen kartak direla medio, informazioa eman nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen zerbitzuen ezaugarriei buruz, eta zerbitzu horiek kalitatekoak izateko konpromisoa ere hartu nahi dugu.

Gisa honetako ekimenekin eta zure laguntzarekin, lortu nahi dugu foru zerbitzu publikoak berauen erabiltzaile direnen premietara egokitzea eta areago hobetzen jarraitzea.

Martin Garitano Larrañaga
Gipuzkoako diputatu nagusia

Ikeme Badiola Garciandia
Kultura, Gazteria eta Kirola
Departamentuko diputatua

Xedea

Igartubeiti Baserri Museoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu publikoa da eta euskal baserriaren historia, bilakaera eta bertan bizi izan ziren biztanleen eguneroko bizimodua hurbiltzea du helburu, baliabide hauen bitartez: baserria bera, interpretazio zentroa eta baratz ekologikoa.

Balio kultural, historiko, antropologiko eta arkitektoniko multzo bat biltzen, babesten eta hedatzen du. Balio multzo honek euskal ondarearen elementu nagusi bihurtzen dute, hala nola, bikain mantendutako jatorrizko egurrezko egitura eta barruan duen sagardo dolarea.

Horretarako, euskal kultur ondarearekin eta baserri munduarekin erlazionatutako aisialdi jarduerak antolatzen ditu, berauetan produktu ekologikoen erabilera sustatuz eta ezarriz, **Igartuberdea**, kudeaketa jasangarri eredu bateruntz kontzeptu eremuaren bitartez.

Zein zerbitzu eskaintzen ditugu?

Aisialdi jarduerak

- Barrikotea (dolareko sagardoaren dastaketa) eta Martxoan bertsoko kanporaketa
- Emakumeak landa ingurunean Jardunaldia (Emakumeen Nazioarteko Eguna)
- Baserri eguna
- Sagardo Astea
- Musika kontzertuak
- Solasaldiak-hitzaldiak
- Ikastaroak

Hezkuntza zerbitzua

- Bisita gidatuak (banakakoak eta taldeka)
- Ibilbide didaktikoak
 - Domingoren baserria
 - Kattalinen baserria
 - Baserrian bizi
 - Eraikuntza bioklimatikoa
 - Dolare baserria
- Tailer dinamizatuak:
 - Baratzea
 - Gure aiton-amonak bezala jolasten
 - Baserriko animaliak
 - Ginkana: Igartubeitiko saguxarra aurkitzen
 - Galleta ekologikoak egiten
- Euskarri didaktikoak:
 - Baserria eta bere ingurunea maketa
 - Baratze didaktikoa
- Tailerrak familian
- Arte eta Natura Zikloa
- FamiliTxartela
- Ospatu zure urtebetetzea Igartubeitin
- Igartubeitiko hezkuntza eskaintzaren azterketa EHUko Magisteritza Eskolaren eskutik

Web zerbitzua

- Erakusketa birtualak
- Eduki didaktikoak
- Dokumentazioa
- Bloga
- Agenda
- Sare sozialak

Hedapen eta promozio zerbitzua

Hileroko newsletter digitala.

Igartuberdea

Jarduerak, zerbitzuak, programak, baita barne kudeaketa ere biltzen dituen kudeaketa jasangarri eredu baten garapena.

Beste instituzio edo eragileekin lankidetzak

- Beste museo batekin lankidetzan dugun ibilbidea: "Gure iraganera bidaia" – Bonu bateratua Zumalakarregi museoarekin.
- Pasaporte gastronomikoa D'elikatuz, Gaztaren I.Z. eta Sagardoetxearekin lankidetzan
- "Baserria eta itsasoa", Untzi Museoarekin ibilbide bateratua

Arreta

Denda

Bertako artisau produktuen eskaintza.

Zein dira gure konpromisoak?

- 1) Antolatutako jardueren kalitatea bermatzea, jorratuko diren gaietan adituak diren profesionalak gonbidatuz.
- 2) Igartubeiti Baserri Museoaren jardueretako 1 gutxienez kanpoan egitea.

- 3) Bisita gidatuen aurrez egindako erreserbak, eskaera jasotzen direnetik gehienez 48 orduko apean erantzutea.
- 4) "Jarduera pedagogikoen" katalogoa urtero berrargitaratzea.
- 5) Urtero 5 famili berrik FamiliTxartela eskuratzea.
- 6) EHUko Magisteritza Eskolaren proposamenak kontutan izatea.

- 7) Gutxienez urtero erakusketa birtual bat egitea.
- 8) 2 post argitaratzea hilero museoko blogean.
- 9) Hilero agendan bi jarduera argitaratzea.
- 10) Astero bi gertaera edo tweet argitaratzea.

- 11) Museoko jardueri buruzko informazioa hilero eskaintzea newsletter-en komunikazio digitalaren bitartez.

- 12) Ingurugiroarekin eta natur ondarearekin erlazionatutako 10 jarduera gutxienez urtero programatzea.
- 13) Lan prozesuetan eta jardueretan ingurumenaren gaineko eragina txikiagotzea.

- 14) Inguruko eragileekin lankidetzan gutxienez 5 jarduera gauzatzea.

- 15) Jendeari adeitasunez arreta ematea.
- 16) Bisitarietzako leku egoki eta erosoak izatea.

- 17) Bertako artisau produktuen salmenta.

Nola neurtzen dugu?

- 1) Aditu profesionalakiko, bertaratzen diren pertsonen baliospena 7,5etik gora.

- 2) Burutatako jardueren kopurua.

- 3) 48 ordu baino lehenago erantzundako aurrez egindako bisita gidatuen ehunekoa.

- 4) Urtean argitaratutako edizio kopurua.

- 5) Famili berrien kopurua.

- 6) Ezarritako proposamen kopurua.

- 7) Urtero egiten diren erakusketa birtualen zenbatekoa.
- 8) Argitaratutako post kopurua.
- 9) Argitaratutako jarduera kopurua.
- 10) Argitaratutako gertaera edo tweet kopurua.

- 11) Urteroko bidalketen zenbatekoa.

- 12) Programatutako jardueren zenbatekoa.
- 13) Ingurugiroari dagozkion datuak artero zenbatuz eta aztertuz.

- 14) Burututako jarduera kopurua.

- 15) Erabiltzaileen baliospena 7,5etik gora.
- 16) Erabiltzaileen baliospena 7,5etik gora.

- 17) Bertako artisau produktuen kopurua salgai.

Internet / Telefonoak

Internet helbidea

www.igartubeitibaserra.net

Email

igartubeiti@gipuzkoa.net

Telefonoa

+34 943 722 978

Fax

+34 943 880 138

Konpromisoak betetzea / Herritarren eskubideak

Konpromisoak betetzea

Zerbitzu karta honen konpromisoak noraino betetzen diren jakiteko, urteko emaitzak ikus ditzakezu web gune hauetan:

- www.igartubeitibaserra.net
- www.gfaegoitza.net

Herritarren eskubideak

Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanetan dituzten eskubideak jasoak ditu apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretuak, 4. artikuluan (GAO 101 zk., 2005eko maiatzaren 31koa).

- www.gipuzkoa.net/Tramiteak eta Zerbitzuak / Laguntza / HerritarrenHerritarren eskubideak

Partaidetza, kexak eta iradokizunak

Gipuzkoako Foru Aldundiak kexak eta iradokizunak aurkezteko sistema bat ezarri du, eskainitako zerbitzuei eta karta honetan hartutako konpromisoei buruz herritarrek duten iritzia helaraz dezaten.

Kexak eta iradokizunak Aldundiaren edozein erregistrotan aurkez daitezke, postaz edo Internet bidez, honako web orrian: www.gfaegoitza.net

Gipuzkoako Foru Aldundiak 30 laneguneko epea du erreklamazioei erantzuteko.

Zerbitzuak zure parte hartzeaz hobetu nahi ditugunez, eskertuko genizuke asebetetze mailari buruz aurkezten zaizkizun inkestak betetzea.

Orduategia / Helbideak

Bisita orduak

Martxoaren 1etik urriaren 31rarte

Asteazkenetik igandera:

10:00-14:00 eta 16:00-19:00

Astelehen eta asteartetan itxita

Jai egunak: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00

Bisita gidatuak: 11:00, 12:30 eta 17:00

Azaroaren 1etik otsailaren 28ra

Asteazkenetik ostiralera: 10:00-14:00

Larunbat, igande eta jaiegunak:

10:00-14:00 eta 16:00-19:00

Astelehen eta asteartetan itxita

Bisita gidatuak: 11:00, 12:30 eta 17:00

Aste Santua

Ostegunetik astelehenera:

10:00-14:00 eta 16:00-19:00

Posta helbidea

Igartubeiti Baserri Museoa

Ezkio bidea, zg (Ezkiorako errepidea 1. Kilometroa)
20709 Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa)

Garraiobideak

Igartubeiti Baserri Museoa Ezkion dago, Ormaiztegi eta Zumarraga artean.

Aparkalekua

Museoak aparkalekua du .



Busa

- Donostia-Bilbo – (PESA autobusak)
- Iruña-Eibar – (PESA autobusak)
- Legorreta-Zumarraga – (Goierrialdea autobusak)



Zerbitzuen karta honen ardura duen unitatea

Ondare Historiko-Artistikoa, Agiritegiak eta Museoaren Atala arduratu da zerbitzu karta hau prestatzeaz, Foru Administrazioaren Modernizazioko Zuzendaritza Nagusiak lagunduta.

Kontaktua

www.gipuzkoakultura.net

Igartubeiti Baserri Museoa

Ezkio bidea, zg (Ezkiorako errepidea 1. Kilometroa)
20709 Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa)

T. +34 943 722 978

F. +34 943 880 138

www.igartubeitibaserra.net
igartubeiti@gipuzkoa.net